

# Otsailak 4, astelehena

## Santa Ageda bezpera



### Ibilbidea:



**17:30ean:** Irteera Elorripetik

**Jon Iturrioz eta Eneko Araiztegi** koplariak  
Herriko trikitilariak eta panderojoleak

**19:30ean:** Plazan herriko koruarekin elkartu eta kalez kale  
Txokolatea gerturatzaren diren guztientzat

**21:30ean:** Afaria Elorri elkartearen.

## Santa Ageda bezpera, lurra kolpeka esnatzeko eguna

Santa Ageda bezperak kristautasunaren aurreko zantzuak gorde ditu. Negu bukaerako festa da, inauteriekin lotura duena, makilekin lurra joaz udaberriaren esnatzea irudikatzen duena.

Santa Ageda egunak eta inauteriak jatorri berbera dutela esan liteke. Aintzinatik datozen ospakizunak dira, eta biak neguaren bukaera adierazten dute, lurra lozorrotik ateratzen ari dela.

Kristau erlijio aurreko ospakizunak dira eta elizak bereganatu egin zituen beste itxura bat emanez, hortik dator Santa Ageda izena.

Azken hamarkadetan,  
Goierriko ia herri guztietan berreskuratu da ohitura hau.

Antolatzailea  
**Elorri Kultur Elkarte**  
Laguntzailea  
**Herriko korua**